

HIZKUNTZA PROIEKTUA

AURKIBIDEA

1. HIZKUNTZA PROIEKTUA
2. IKASTETXEKO EZAUGARRIAK
3. HELBURUAK
4. HIZKUNTZEN FUNTZIOAK, EZAGUTZA MAILA eta ERABILERA
5. HIZKUNTZEN ERABILERA ESPARRUKA
6. HIZKUNTZEN ERABILERA HARREMANETAN
7. IKASTETXEKO TALDEAK ETA HIZKUNTZAK
8. HIZKUNTZAK IKASTEKO METODOLOGIA
9. HIZKUNTZEN EBALUAZIOA
10. HIZKUNTZA PROIEKTUAREN JARRAIPENA

1. HIZKUNTZA PROIEKTUA

1.1. Zer da Hizkuntza Proiektua?

Hizkuntza Proiektua honela defini dezakegu: dokumentu bat da, batetik eskolako hizkuntza-tratamendu orokorrari dagozkion printzipioak eta bestetik ikastetxean hizkuntzak nola irakatsi eta erabili deskribatzen duten elementuak biltzen dituen.

Beraz, gure ikastetxeko hizkuntza-errealitatetik abiatuta, eta errealitate horren hausnarketaren ondorio gisa, hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak zehaztu nahi ditugu dokumentu honetan.

1.2. Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua eta Hezkuntza Proiektua

Bi elementu hauek guztiz erlazionaturik daude: banatu ezin daitezkeen proiektuak dira. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren barnean dauden elementuetako bat hizkuntza da; beraz, Hezkuntza Proiektuaren barruan dago Hizkuntza Proiektua, hari lotuta betiere.

Elbira Zipitria ikastetxean, zentroko bizimodua arautzen duen Hezkuntza Proiektua diseinatu ondoren, Hizkuntza Proiektua idazteko beharra sentitu dugu. Oinarri orokorrak finkaturik daudenez, hizkuntza-planifikazioari, ikasketetako hizkuntzei eta hizkuntzen ikasketari dagozkien atalak txertatu behar ditugu hezkuntzaren plangintzan.

1.3. Zer jasoko du Hizkuntza Proiektuak?

1. Gure ikastetxea erreferentea da euskararen normalizazio-prozesuan inguruko komunitatean; hortaz, EUSKARA eremu guztietan erabiltzeko eta harekiko jarrera baikorra sustatzeko hartu beharreko erabakiak zehaztuko ditugu Proiektuan helburu hauekin:

- Komunikatzeko tresna eragingarria izatea.
- Harremanetarako hizkuntza nagusia izatea.
- Edozein arlotan ikasketak egiteko hizkuntza garrantzitsuena izatea.
- Gure Herriko kultura-hedatzailea izatea.

2. BESTE HIZKUNTZEN irakaste-ikastearen prozesuaren irizpide orokorrak ere zehaztuko ditugu.

- Gaztelaniaren irakaste-ikastearen prozesua eta haren trataera.
- Atzerriko beste hizkuntzen (ingelesa eta frantsesa) irakaste-ikastearen prozesua eta haien trataera..

Horrek guztiak honakoa dakar:

- Ikastetxean erabili eta lantzen diren HIZKUNTZEN TRATAERA orokorra zehaztea, hizkuntza bakoitzak zer lehentasun maila duen, nolako identitatea, zer funtzio, eta zer esparrutan erabiltzekoa den bereiziz.
- Ikastetxean lantzen diren hizkuntzak era koherentean garatuko dituen HIZKUNTZA CURRÍCULUMAK sortzen jarraitzea, metodologia, ebaluazioa eta estrategia komunak bilatuz.
- Etapa guztietako hizkuntza-irakasleek beren artean KOORDINATZEA metodologia-estrategiak eta ebaluazio-irizpideak zehazteko. Hori dela eta, urtero, ikasturte hasieran, LMHko ziklo bakoitzeko irakasle bat eta DBH-DBHoko Euskara, Gaztelania eta Ingelesa mintegietako bi kide elkartuko dira.
- Guztiok inplikatzeko euskararen normalizazioan eragiteko, Normalizazio Proiektuan era aktiboan parte hartuz.

2. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK

Elbira Zipitria ikastetxea 1973. urtean sortu zen; eta Foru Aldundiaren menpean egon zen, harik eta 1985. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari transferitu zitzaien arte, beste ikastetxe batzuekin batera. Hezkuntza Proiektuak dioen bezala, "gure ikastexea euskal ikastetxea da, publikoa, integrala eta ez konfesionala".

Ikastexea Obaba herrixkan dago kokatuta.

Gure ikastetxea integrala denez, 4 hezkuntza-etapa eskaintzen ditu:

- Haur Hezkuntza (2-6 urte)
- Lehen Hezkuntza (6-12)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondokoa (16-18)

Gaur egun, 1.117 ikasle ditugu. Haietatik 212 + 54 (2 urtekoen gelan) Haur Hezkuntzan daude, eta 444 Lehen Hezkuntzan (maila bakoitzean, 3 linea); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 341 ikasle ditugu (4 linea eta Curriculum Aniztasuneko talde bat); eta Batxilergoan, 120 ikasle, 2-3 taldetan banandurik.

Etapaz guztiak D hizkuntza ereduak dira. Haur Hezkuntzako 3 urtekoen gelatik Lehen Hezkuntzako 2. mailara arte "Mantendu" ereduak eskaintzen zaie ama-hizkuntza euskara duten ikasleei. 2009-2010 ikasturtean bildutako datuen arabera, ikasleen % 26,56ren jatorrizko hizkuntza euskara da.

Guztira, 118 irakasle gara: 52 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 66 DBHn eta DBHOn. Irakasle guztiok 2. HE profila dugu (Hezkuntzako bigarren hizkuntza-eskakizuna). Ikasle eta irakasleez gain, administrazioko eta zerbitzuetako 45 langile daude: jangelako 31 begirale, 9 sukaldari, 4 atezain eta administratibo bat; 4 sukaldari izan ezik, denak euskaradunak.

Merezi du ikastetxeak dituen beste zerbitzu batzuk nabarmentzea, erabiltzaile ugari baitituzte:

- Jantokia: 2010-2011 ikasturtetik aurrera, Administrazioak kudeatzen du zuzenean. Azken urteotan, jantokia erabiltzen duten ikasle kopuruak gorakada handia izan du; hala, 2011-2012 ikasturtean, ikasleen % 75era ailegatu zen. Jantokiko zereginak eta funtzioak aurrera eramateko, berriaz liberatutako irakasle baten laguntza dugu.
- Eskola-garraioa: Administrazioa arduratzen da garraioaz, eta, hortaz, bere gain hartzen du kudeaketa. Zuzendariarekin batera dihardu; izan ere, antolatzeaz arduratzen da zuzendaria. Batxilergoan, garraioa ez da doakoa, hezkuntza-etapa hori ez baita derrigorrezkoa.

3. HELBURUAK

<ul style="list-style-type: none"> • Elbira Zipitria ikastexearen Hezkuntza eta Hizkuntza Proiektuen ardatza euskara izanik ere, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera bermatu nahi ditu, ikasleak eleaniztunak izan daitezen. 	<p>Elbira Zipitria ikastexeak euskararen eta euskal kulturaren transmisioa, garapena eta zabalkundea ziurtatu nahi ditu, bai eta, horretarako, hezkuntza-komunitatearen harremanetan euskara erabiltzea bermatu ere.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Elbira Zipitria ikastexeak euskararen normalizazio-prozesuaren eragile izan nahi du inguruko komunitatean, eta, horretarako, bestelako gizarte-eragile zein askotariko elkarteekin lankidetzan jarduteko borondatea du.
<ul style="list-style-type: none"> • Eleaniztasunaren egitasmoa zehazteko eta garatzeko egin beharreko moldaketak zein izan litezkeen antzeman, eta bultzatu • Gaitasunak kontuan hartuta, hizkuntzen curriculumak sortu • Euskaraz eta gaztelaniaz, ahozko zein idatzizko mezuak ulertu eta ekoitzi, autonomiaz eta sormena erabilia • Ingelesari dagokionez, oinarritzko komunikazio-esparruetan gertatzen diren ohiko egoerak eta ahozko zein idatzizko diskurtsoak ulertu eta ekoitzi 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezen ahalegindu • Ikastetxeko giroa euskalduna izateko neurri egokiak hartu • Ikastetxeko gobernu- eta funtzionamendu-organoetan gauzatzen diren harremanetan euskara nagusi izan dadila indartu eta bideratu • Ikastetxeko dokumentazioan erabilitako euskara gaurkotu, eta egoki eta zuzen idazten saiatu • Euskaldunak ez diren familietan euskararekiko zaletasuna eta errespetua landu, eta familia euskaldunetan harremanak euskaraz izan ditzaten bultzatu 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal Herriko hizkuntza propioa ahalik eta eremu gehienetan erabiltzeko konpromisoa azaldu, eta gure kultura-ondarea ezagutu, estimatu eta defenditzen, kontserbatzen eta hobetzen lagundu • Euskal kultura-ekimenak sortu edo zabaldu, eta beste gizarte-erakundeek proposaturikoetan parte hartu • Euskararen normalizazioaren alde ari diren erakundeekin elkarlanerako harremanak ezarri • Administrazioako erakundeekin izaten diren harremanetan, euskara ahalik eta gehien erabili
<p>Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna herriaren eta norbanakoen eskubidetzat eduki eta onartu; eskubide horretaz baliatzean, errespetuzko eta konpromisozko jokabidea agertu, eta diskriminazioak, sortuz gero, gaitzetsi eta gainditzen ahalegindu.</p>		

4. HIZKUNTZEN FUNTZIOAK, EZAGUTZA MAILA eta ERABILERA

4.1. Hizkuntza bakoitzaren esparruak eta funtzioak

✓ Euskara. Ikastetxeko hizkuntza nagusia euskara izango da, eta, ahal izanez gero, egoera guztietan erabiliko da.

✓Gaztelania. Ikasgai gisa lantzeaz gain, komunikazio-tresna moduan ere erabiliko da hainbat egoeratan (euskara ez dakitenekin).

✓ Ingelesa. Ikasgai gisa landuko da; hala ere, hurrengo ikasturteetan, DBHn arloren bat ingelesez emateko aukera aztertuko da.

✓ Frantsesa. DBHko 3.-4. eta DBHoko 1.-2. mailetan eskaintzen jarraituko dugu urtero, aukerako irakasgai modura.

4.2. Hizkuntza bakoitzaren EZAGUTZA maila

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumara arautzen duen 2007ko urriaren 16ko dekretuan aipatzen den bezala, gure ikasleek honako hizkuntza maila hauek lortu beharko dituzte derrigorrezko eskolatzearen amaierarako:

4.2.1.- Euskarari eta gaztelanian, erabiltzaile independente aurreratuaren maila (B2) lortu beharko dute. Maila horren arabera, bi hizkuntzak egoki eta taxuz erabiliko dira hainbat egoera komunikatibotan, edonolako testuinguruetan, gero eta gradu formalagoan eta konplexuagoan:

Erabiltzaile independentea B2 (maila aurreratua)

"Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoak ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hitzuneekin mintza daiteke, jarioz eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez bestek ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorrei buruzko ikuspegi jakin bat aldeztzeko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez." ¹

4.2.2. Atzerriko hizkuntzan (ingelesean), atalase mailara (B1) iritsi beharko dute.

Erabiltzaile independentea B1 (atalase maila)

"Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritziak labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko".(1)


Hori guztia dela eta, derrigorrezko eskolaldiaren amaieran hizkuntzarako gaitasuna behar bezala eskuratua izateko, ikasleek ahozko eta idatzizko hizkuntza menderatu behar dute era bateko eta besteko testuinguruetan, eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten erabilera funtzionala izan behar dute.

4.3. Hizkuntzen erabilera eskola-orduetan

Aipatutako ezagutza mailak lortu nahian, eskola-saioak honela banatzea proposatzen du Elbira Zipitria ikastetxeak.

Ehunekotan:

¹ Europako Erreferentzia Marko Bateratua.



(1) Europako Erreferentzia Marko Bateratua

Saioen banaketa:

ETAPA	ADINA	EUSKARAZ	EUSKARA	GAZTELANIA	INGELES	FRANTSESA
HH (25 saio)	3 4 5	25 saio 22 saio 22 saio			3 saio* 3 saio*	
LMH (25 saio)	1 2 3 4 5 6	23 saio (19 + 4) 21 saio (17 + 4) 19 saio (15 + 4) 19 saio (15 + 4) 19 saio (15 + 4) 19 saio (15 + 4)	4 saio 4 saio 4 saio + 4 saio + 4 saio 4 saio	2 saio 3 saio 3 saio 3 saio 3 saio	2 saio 2 saio 3 saio + 3 saio + 3 saio + 3 saio +	
DBH (30 saio)	1 2 3 4	22 saio (19 + 3) 23 saio (19 + 4) 24 saio (22 + 4) 24 saio (21 + 3)	3 saio 4 saio 4 saio** 3 saio**	4 saio 4 saio 3 saio 3 saio**	4 saio 3 saio 3 saio 3 saio**	2 saio*** 3 saio***
DBHO (32 saio)	1 2	26 saio (23/ 19 + 3) 27 saio (24/ 20 + 3)	3 saio 3 saio	3 saio 3 saio	3 saio 3 saio	4 saio*** 4 saio***
HIZKUNTZEN %		% 81,70 (% 70,97 + % 10,73)		% 8,30	% 10	% 0,32***

* 30 minutuko saioak dira (HH).

** Talde eta saio guztietan, ikasleak multzo txikiagotan daude (DBH).

+ Astean behin, taldea bikoiztu egiten da (LMH) .

*** Aukerazkoa denez, ikasle batzuek baino ez dute ikasten.

5. HIZKUNTZEN ERABILERA ESPARRUKA

5.1. Ordezkaritza Organo Gorena

- ✓ OOGren bileretan, hasierako eta bukaerako agurrak euskaraz egingo dira beti.
- ✓ OOGko partaide gehienek (zuzendaritza + irakasleak + ikasleak + guraso batzuk) euskara badakitenez, bileretan euskaraz parte hartzearen aldeko apustua egingo da.
- ✓ Euskaraz esaten dena OOGko partaide guztiek uler dezaten, bilera bakoitzaren hasieran, aukeratuko da nor beteko duen itzultzailearen papera, eta pertsona horrek laburtu egingo du esandakoa.
- ✓ OOGren bileren aktak elebidunak izango dira: lehenengo laburpena, euskaraz beti; eta bigarrena, gaztelaniaz.

5.2. Funtzionamendu-organoak

- ✓ Ikastetxeko bilera guztiak euskaraz egiten jarraituko dugu.
- ✓ Formazio-saioak euskaraz egingo dira, eta aurkeztutako materiala euskaraz egon dadin saiaturiko gara.
- ✓ Gaia interesgarria denean eta euskaraz egitea ezinezkoa denean, formazio-saioak gaztelaniaz egingo dira. Beste aukerarik egon ezean, onar liteke erabilitako materiala ere gaztelaniaz egotea.

5.3. Dokumentazioa

- ✓ Barruko dokumentazioa, klaustroak erabiltzen duena, euskaraz idatzita egongo da ia beti; beraz, sortu ere euskaraz sortuko dira ikastetxeko dokumentuak.
- ✓ Gurasoek parte hartzen duten batzordeetan aurkeztu beharreko dokumentuak gaztelaniara itzuliko ditugu (ikastetxean idazten diren dokumentu guztiak euskaraz sortuak dira).
- ✓ DBHko eta DBHoko "Lengua y Literatura Castellana (Espainiako Hizkuntza eta Literatura)" mintegiko programazioak eta aktak gaztelaniaz egiten jarraituko dugu.
- ✓ Ikastetxe osoan, Ingelesa ikasgairako programazioak ingelesez egiten jarraituko dugu.
- ✓ Gurasoei zuzendutako dokumentuak hizkuntza bietan idatzita egongo dira, baina betiere lehentasuna emango zaio euskarari, euskarazko testua ezkerrean edo goialdean kokatuta.

5.4. Hizkuntzaren kalitatea

- ✓ Denbora luzean erabiltzekoak diren testu berrietako (ziurtagiriak, bilera orokorretarako deialdiak...) hizkuntzaren kalitatea bermatzeko, bi arduradun izendatuko dira: bata euskarako bertsioa berrikusteko, eta bestea gaztelaniazkoa.
- ✓ Eginda ditugun testu eta idatziak berriz aztertuko ditugu, euskararen eta gaztelaniaren kalitateari erreparatuz.
- ✓ Irakasleok, hizkuntza-ereduak garela kontuan hartuta, hizkuntzen kalitatea eta aberastasuna zaintzen eta hobetzen jarraituko dugu.
 - Euskara batzordeko kideek Euskaltzaindiaren azken erabakiak jaso eta irakasleen eskura jarriko dituzte.
 - Hizkuntzei buruzko ikastaroen informazioa (Irale, Garatu...) ere zabalduko da.
- ✓ Irakasleok Euskal Herriko eskualde bakoitzak duen hizkuntzaren aberastasuna transmititzen ahaleginduko gara.

5.5. Ikastetxeko paisaia linguistikoa

- Sarreretan
 - Sarrera nagusiko kortxoan Euskara batzordeak daukan tokia behar-beharrezkoa denez, batzordearentzat gordeko da.

<http://www.irale.hezkuntza.net/web/guest/9hizkuntzaproiektua>

- Irakasleen geletan
Irakasleen geletan euskara nagusi izango dela onartuta ere, bertan ipiniko den informazioa edozein hizkuntzatan egon daiteke.
Euskara batzordeak dauzkan tokiak (LMHko armairua, eta DBHko kortxo eta apala) batzordearentzat gorde behar dira.
- Ikasgeletan
Haur eta Lehen Hezkuntzan
 - ✓ Gelako hormetan, euskararen presentzia nagusi izango da.
 - ✓ LMHn, gaztelania bere txokoa izango du geletan. Gaztelania ematen duten irakasleek ikasleekin egindako lanak gelako toki jakin batean kokatuko dituzte.
 - ✓ HHn eta LMHko hainbat gelatan, ingelesak txoko bat izango du; eta Ingeles gelan, ingelesa izango da nagusi.
 - ✓ Tutoreek eta espezialistek gelako paisaia erabakion arabera osatuta dagoela bermatuko dute.Bigarren Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza Ondokoan
 - ✓ Zuzendaritzak ikasleei pasatu behar dien informazio guztia (ikastetxekoa, udalak antolatutakoa...) euskaraz idatzita egongo da.
 - ✓ Gelako hormetan, euskararen presentzia nagusi izango da. Euskara edo euskaraz eskola ematen duten irakasleek ziurtatuko dute ikasleekin egindako lanak euskaraz egongo direla.
 - ✓ Gaztelania ematen duten irakasleek ikasleekin egindako lanak gelako toki jakin batean kokatuko dituzte.
 - ✓ Ingelesa ematen duten irakasleek ikasleekin egindako lanak gelako toki jakin batean kokatuko dituzte.
 - ✓ Frantsesa ematen duten irakasleek ikasleekin egindako lanak gelako toki jakin batean kokatuko dituzte.
 - ✓ Tutoreek eta gaztelania, ingeles eta frantses irakasleek gelako paisaia erabakion arabera osatuta dagoela bermatuko dute.
- Pasilloetan
 - ✓ HHko eta LMHko pasilloetako txartel gehienak euskaraz idatzita egongo dira. Halaber, proiektuen arabera sorturiko lanak gaztelaniaz eta ingelesez ere agertuko dira.
 - ✓ DBHko eta DBHOk pasilloetan dagoen informazio gehiena euskaraz egongo da, eta, programatutako euskarazko jardueren berri emateko, bi horma berezi erabiliko dira lelo honekin: "TAUSKARAZ, ZER?".
 - ✓ Normalizazio batzordeak pasilloetako informazioan euskara nagusi dela bermatuko du, eta kortxoetako informazioa hilerro-edo berrituko du.

5.6. Baliabideak: liburutegia, multimedia, softwarea...

- ✓ Ikastetxean 3 liburutegi daude: HHn, LHn eta Bigarren Hezkuntzan. Liburutegietako liburu gehienak gaztelaniaz eta euskaraz egon arren, ingelesez ere badaude, baina gutxiago dira; hori dela eta, ahaleginduko gara ingelesezko liburu kopurua handitzen eta pixkanaka-pixkanaka berritzen.
- ✓ Orokorrean, software eta multimedia-programa gutxi ditugu; are gutxiago, euskaraz. Gure irakaskuntzarako baliabide eraginkorrak direnez, liburuak, softwarea, multimedia... erosteko lehentasuna izango dute euskarazkoek aurrekontuak diseinatzean, betiere materialen kalitatea kontuan izanda. Horrez gain, ikasleen informatika gela guztietan euskaraz jarriko dira sistema eragileak.
- ✓ Bigarren Hezkuntzako gela guztietan, ahalegina egingo dugu euskara-, gaztelania- eta ingeles-hiztegi bana egon dadin, euskara-hiztegiarekin hasita. Gela guztietara


Elbira Zipitria ikastexea-Hizkuntza Proiektua

2011-2012 ikasturtea

IRALEko Kontsulta Zerbitzua, Idazki Ereua:

<http://www.irale.hezkuntza.net/web/guest/9hizkuntzaproiektua>

ordenagailuak ailegatzen diren heinean, hiztegi digitalak (EUSKALBAR...) erabiltzea bultzatuko dugu.



6. HIZKUNTZEN ERABILERA HARREMANETAN

6. 1. Ikastetxeak dituen kanpo harremanak

- ✓ Euskal Herriko toki batera –edozeinetara– bidaltzen diren idatziak bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) edo euskara hutsean erredaktatuko dira, zein den hartzailea.
- ✓ Euskal Herriko instituzio publikoetara bidaltzen diren idatziak euskaraz erredaktatuko dira.
- ✓ Euskal Herriko kanpora bidaltzen diren idazkiak, hartzailearen hizkuntza errespetatzeaz gain, euskaraz ere erredaktatuko dira.
- ✓ Ahozko komunikazioak direnean, telefono-deiak euskaraz erantzuten jarraituko dugu, eta, zein den hartzailea, ulergarria zaion hizkuntzan arituko gara.

6. 2. Irakasleen arteko harremanak

- ✓ Irakasleen arteko harremanak euskaraz egingo dira.
- ✓ DBHko eta DBHoko irakasleok ingelesezko elkarrizketetarako laguntzailea bertan dagoela aprobetxatuko dugu berarekin ingelesez mintzatzeko.

6. 3. Ikasleen arteko harremanak

- ✓ Ikasleen arteko harremanak euskaraz egingo dira.
- ✓ Gure inguruan nagusi den hizkuntza gaztelania dela jakinda, ikastetxean indartu behar den hizkuntza euskara da. Horretarako, ikasleek beren artean euskara erabiltzea bultzatzeko jarduerak jasoko ditu Euskara batzordearen urteko planak.
- ✓ Ikasleek beren artean gehienbat gaztelania erabiltzen dutela kontuan harturik, ez dugu neurri berezirik behar gaztelania indartzeko. Inoiz gaztelania erabili behar badute, erarik egokienean erabil dezaten saiatuko gara.

6. 4. Irakasleok ikasleekin ikasgelatik kanpo

- ✓ Irakasleok ikasleekin gelatik kanpo hitz egiten dugunean, euskaraz arituko gara.
- ✓ Haur Hezkuntzan, irakasleen eta ikasleen arteko harremanak euskaraz egingo dira.
- ✓ LMHko, DBHko eta DBHoko ikasleekin ditugun harremanetan, euskara erabiliko dugu irakasleok. Beraz, ez dugu malgutasunez jokatu, eta ez dugu onartuko elkarrizketa elebidunik.

6. 5. Irakasleok ikasleekin ikasgelan

- ✓ Irakasleok eskola ematen dugunean (gelan), euskaraz, gaztelaniaz edota ingelesez arituko gara, arloa zein den. HHko, LMHko, DBHko eta DBHoko ikasleekin, euskara erabiliko dugu; Gaztelania, Ingelesa eta Frantsesa arloetan izan ezik, gainerako arlo guztietan. Hau da: HHn, LMHn, DBHn eta DBHOn, irakasleok gaztelania erabiliko dugu Gaztelania arloan; Ingeles eskoletan, ingelesa; eta Frantses eskoletan, frantsesa.

6. 6. Ikasleek irakasleekin ikasgelatik kanpo

- ✓ Gelatik kanpo, irakasleekin hitz egiten dutenean, euskaraz arituko dira ikasleak.
- ✓ Haur Hezkuntzan, ikasleak irakasleengana euskaraz zuzentzea sustatuko dugu.
- ✓ LMHko, DBHko eta DBHoko ikasleekin ditugun harremanetan, irakasleok ez dugu malgutasunez jokatu, eta ez diegu onartuko ikasleei gaztelaniazko erantzunik.

6. 7. Ikasleek irakasleekin ikasgelan

- ✓ Gela barruan, irakasleekin hitz egiten dutenean, euskaraz arituko dira ikasleak.
- ✓ Haur Hezkuntzan, ikasleak irakasleengana euskaraz zuzentzea sustatuko dugu.
- ✓ LMHko, DBHko eta DBHoko ikasleek euskara erabiliko dute arlo guztietan, Gaztelania, Ingelesa eta Frantsesa arloetan izan ezik. LMHn, DBHn eta DBHOn, ikasleek gaztelania erabiliko dute Gaztelania arloan; Ingeles eskoletan, ingelesa; eta Frantses eskoletan, frantsesa.

<http://www.irale.hezkuntza.net/web/guest/9hizkuntzaproiektua>

6. 8. Langile ez irakasleak

- ✓ Langile ez irakasle gehienek (idazkariak, atezainak, jantokiko begiraleak...) euskara dakitenez, harremanetan erabiliko duten hizkuntza euskara izango da.
- ✓ Autobusetako zaindari guztiak euskaldunak izan daitezzen beharrezko urratsak egingo ditugu.

6.9. Gurasoekiko bilerak

☞ Banakako bilerak

Gurasoek, tutore edo irakasleekin biltzen direnean, aukera izango dute gaztelaniaz zein euskaraz jarduteko haiekin.

Ikasturtearen hasieran, tutoreak galdetuko dio ikasle berrien familiari zer hizkuntza erabiltzen duten. Horrez gain, euskarari (eta, kanpotik datozenei, gaztelanian) zein ezagupen maila duten jasoko du.

Euskara edo gaztelania ez dakiten gurasoei, antolatzen diren ikastaroen berri emango zaie, bi hizkuntzok ikas ditzaten.

☞ Kurtso-hasierako bilerak

HHko 3.-4.-5. eta LHko 1.-2. mailetan

Kurtso-hasierako bilerak bi fasetan egingo ditugu:

A.- Mailako bilerak bi hizkuntzetan eskaini nahian, tutoreek bi bilera egingo dituzte aldi berean: bata, euskaraz, eta bestea, gaztelaniaz, bietan mailako edo ikastetxeko nondik norako nagusiak azaltzeko. Gurasoen esku geldituko da haietako zeinetara joan.

B.- Aurreko bilerak amaitu ondoren, familia bakoitza dagokion gelara joango da tutorearekin, eta taldeari buruzko hainbat gai aztertuko dituzte: ordutegia, irakasle-taldea...

Euskaraz egiten dutenen taldeetan

Bilera EUSKARAZ egingo da, eta, guraso erdaldunik egonez gero, gaztelaniazko laburpentxo bat egingo zaio. Horrez gain, bilera bukatu ondoren, aukera eskainiko zaio zerbait argitu nahi duenari tutorearekin hitz egiteko.

Euskaraz egiten ez dutenen taldeetan

Bilera, gehienbat, GAZTELANIAZ egingo da, baina aurkezpena, agurrak... bi hizkuntzetan egingo dira, bai eta dokumentazioa bi hizkuntzetan aurkeztu eta eman ere.

Gelako bilera horietan, gurasoek galderak euskaraz eginez gero, tutoreak itzuli egingo lituzke, bai galderak, baita erantzunak ere.

LMHko 3.-4.-5.-6., DBHko 1.-2.-3.-4. eta DBHoko 1.-2. mailetan

Kurtso-hasierako bilerak bi fasetan egingo ditugu:

A.- Mailako bilerak bi hizkuntzetan eskaini nahian, tutoreek bi bilera egingo dituzte aldi berean: bata, euskaraz, eta bestea, gaztelaniaz, bietan mailako edo ikastetxeko nondik norako nagusiak azaltzeko. Gurasoen esku geldituko da haietako zeinetara joan.

B.- Aurreko bilerak amaitu ondoren, familia bakoitza dagokion gelara joango da tutorearekin, eta taldeari buruzko hainbat gai aztertuko dituzte: ordutegia, irakasleak, taldea nola dagoen osatuta...; baina aurkezpena, agurrak... bi hizkuntzetan egingo dira, bai eta dokumentazioa bi hizkuntzetan aurkeztu eta eman ere.

Gelako bilera horietan, gurasoek galderak euskaraz eginez gero, tutoreak itzuli egingo lituzke, bai galderak, baita erantzunak ere.

☞ Orientazio-bilerak

LMHko 6., DBHko 3.-4. eta DBHoko 1. mailetan gurasoekin egiten diren orientazio-bilerak bi hizkuntzetan eskainiko ditugu. Horretarako, jarraian egingo ditugu

<http://www.irale.hezkuntza.net/web/guest/9hizkuntzaproiektua>

bi bilera: bata, euskaraz, eta bestea, gaztelaniaz. Gurasoen esku geldituko da haietako zeinetara joan.

6.10. Jolastokia

- ✓ Ikasleek euskaraz hitz egingo dute jolastokian.
- ✓ Egoera hori bideratzeko, HHko eta LMHko ikasleek beren artean euskara erabiltzea bultzatzeko jarduerak jasoko ditu Euskara batzordearen urteko planak, jolasak antolatuta, jolastokiko lexikoa jorrazteko estrategiak ezarrita....
- ✓ LHn, DBHn eta DBHOn, irakasleok beti arituko gara euskaraz ikasleekin. Gaztelaniaz aritzen direla entzunez gero, euskaraz hitz egiteko gonbitea egingo diegu.
- ✓ Euskara Batzordeak hainbat jarduera programatuko ditu jolas-garaietan DBHko ikasleek euskara erabil dezaten.

6.11. Jantokia

- ✓ Jantokiko hizkuntza euskara izango da.
- ✓ Ikasturtearen hasieran, jantokiko koordinatzaileak ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren berri emango die begirale guztiei.
- ✓ Jantokiko begiraleek beti hitz egingo diete euskaraz ikasleei. Begiraleek ahalegina egingo dute hasiera-hasieratik egiteko euskaraz HHko ikasleekin. LMHko eta DBHko ikasleekin, berriz, ez dute malgutasunez jokatu, eta ez dute onartuko elkarriketa elebidunik.
- ✓ Jantokiko begiraleek, HHko eta LMHko ikasleen etxera bidaltzen den fitxatxoan, erreferentzia egingo diote euskararen erabilerari.

6.12. Jarduera osagarriak

Elbira Zipitria ikastetxeko jarduera osagarri gehienak euskaraz egiten dira. HHn eta LMHn, gertatu ohi da jardueraren bat ingelesez egitea. DBHko eta DBHOn, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez ere egiten dira hainbat jarduera.

- ✓ Gure testuingurua kontuan izanik, ahalegina egingo dugu jarduera osagarri gehienak euskaraz izan daitezen.
- ✓ Urtero, jarduera osagarriren bat gaztelaniaz antolatuko da DBHn eta DBHOn; eta gutxienez jarduera osagarri bat ingelesez antolatuko da LMHn, DBHn eta DBHOn.
- ✓ Hizkuntza bakoitza zenbat erabiltzen den balioesteko, urteko planean zehaztuko da zein hizkuntzatan izango diren jarduera osagarri guztiak.

6.13. Eskolaz kanpoko jarduerak

Iturribarri Guraso Elkarteak antolatzen ditu jarduera hauek, eta ikastetxeko baliabideak erabiltzen ditu. Jarduerak eskola-orduetatik kanpo egiten dira: eguerdian, arratsaldean eta asteburuetan. Iturribarri Guraso Elkarteak eutsi egingo dio jarduera gehienak euskaraz eskaintzeko konpromisoari.

7. IKASTETXEKO TALDEAK ETA HIZKUNTZAK

7.1. Ikasleak etxeko hizkuntzaren arabera taldekatzeko irizpideak

Haur Hezkuntzako 3 urtekoen taldeak antolatzerakoan, hainbat irizpide hartzen ditugu kontuan: zenbat neska eta mutiko diren, maila berean anaia-arrebarik dagoen... Dena dela, ama-hizkuntza da irizpide nagusia. Hala, bi motatako talde hauek ditugu hasieratik: 'MURGILTZE' eta 'MANTENDU' taldeak, hain zuzen ere. Matrikulatze-garaietan, familia guztiek taldekatze horren berri izango dute. Pedagogiari eta guztion arteko harremanei erreparatuta, ondoren aipatuko ditugun abantailak ditu ikasleak horrela taldekatzeak:

1. 'MANTENDU' ereduak (ikasleen ama hizkuntza euskara denean)

- Euskaldunen autoestimua garatzen da (euskara hizkuntza gutxitua delarik).
- Hizkuntza-gaitasuna hobetu egiten da.
- Hizkuntza ezagutzeak ikaste-prozesua errazten du.
- Euskara komunikatzeko ohiko hizkuntza izatea lortzen da.
- Euskaldunak beren hizkuntzan eskolaratzeko eskubidea bermatzen da.

2. 'MURGILTZE ereduak' (ikasleen ama-hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza bat denean)

- Hizkuntza-gaitasunaren maila eskuratzeko abiapuntua antzekoa izaten da ikasle guztiengan.
- Hizkuntzaren trataera eta ikaste-prozesua gaitasun maila horri egokitzen zaizkio: edukiak, ebaluazio-irizpideak...
- Metodologia ere egokitzen denez, bigarren hizkuntza barneratzea erraztu egiten da.
- Ikasleek, komunikazioari begira, lehen egunetatik daukate aukera beren emozioak, sentimenduak, bizipenak... ama-hizkuntzan adierazteko. Hala ere, ikastetxean, eskolaratzearen hasieran bereziki, irakasle guztiok euskaraz baino ez diegu hitz egin behar umeei, euskara eskolarekin identifikatzeko eta irakasleak euskararekin lotzeko.

Beraz, goian emandako arrazoiengatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu ikasleak lehenengo urteetan ama-hizkuntzaren arabera taldekatzea.

NOIZ ARTE BI EREDUAK?

2009-10 ikasturte arte, 'MANTENDU' eta 'MURGILTZE' ereduak LEHEN HEZKUNTZA OSOAN bereizten ziren; baina, azken urteotan jasotako esperientzia dela eta, ereduok nahastea erabaki zen.

Bi ereduak LEHEN HEZKUNTZAN nahastearen aldeko irizpideak hauek izan ziren:

- 1.- Ikasturteak aurrera egin ahala, bi ereduak bereizteko hasierako arrazoi haiek pisua galtzen doaz, bi ereduaren erabiltzen dugun euskararekiko metodologiak berdintzeko joera baitago.
- 2.- Bi ereduak nahasteak hobetu egiten du ikasleen hizkuntza-gaitasuna: "Ume erdaldunak ez ditugu ondo euskalduntzen –edo behintzat ez dugu euskalduntze hori errazten–, eredu onik ez badute; hau da, ume euskaldunen presentziarik gabe (Uri Ruiz Bikandi)".
- 3.- Ikasle guztiek, hizkuntza bat garatzeko, hiztun naturalekin egon behar dute harremanetan.
- 4.- Euskal kulturari begira, ezinbestekoa da euskaraz hitz egiten duten umeen eragina ez daitezen bi gizarte sortu: euskaldunena eta erdaldunena.
- 5.- Guraso euskaldunek euskararekiko motibazioa lantzen lagundu dezakete kurtso hasierako bileretan, eta gelakideek beren artean izan behar dituzten kanpo harremanetan.

<http://www.irale.hezkuntza.net/web/guest/9hizkuntzaproiektua>

- 6.- Ikasleek, euskara maitatzeko, maitatzen ikasi duten ereduak behar dituzte.
- 7.- Bereizketan oinarritutako taldekatzeak areagotu egiten ditu taldeen arteko desberdintasunak.
- 8.- Umeen arteko harremanei erreparatuz, hasierako taldeei eutsiz gero, areagotu egin daitezke talde barruko gatazkak. Umeak nahasten badira, berriz, aukera dugu taldeak orekatzeko.
- 9.- Gure hezkuntza-proiektuan, Eskola inklusiboa bultzatzen dugu.

NOIZ ELKARTU TALDEAK?

Hainbat hizkuntza-adituren ustez, bi baldintza hauek bete behar dira taldeak nahastu baino lehen:

- Oinarrizko irakurketa eta idazketa garatuak izatea.
- Gutxienezko hizkuntza-gaitasuna (ahozkoa zein idatzizkoa) bereganatua izatea.

Bi baldintza horiek Lehen Hezkuntzako 1. zikloaren amaieran betetzen direnez, 2. zikloaren hasieran (LHko 3. mailan) nahastuko dira ikasleak.

Hori dela eta, 3. hiruhilekoan, eskutitz bat bidaliko zaie LMHko 2. mailan dauden ikasleen familiei, taldeak nahastu egingo direla gogoratzeko.

NOLA OSATU TALDE BERRIAK?

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan, TALDE HETEROGENEOAK sortu nahi izanez gero, irizpide hauek erabil litezke:

1. Talde bakoitzean, euskara menperatzen eta erabiltzen duten ikasleen gutxienezko kopurua dagoela ziurtatu.
2. Taldeak osatzerakoan, ikasleen jarrera edota izaeraren ezaugarriak hartu kontuan.
3. Sexua dela eta, nesken eta mutilen arteko oreka bilatu.
4. Bikiak eta hirukiak banatu.
5. Antzeman zer umek izan litzakeen hezkuntza-behar bereziak.

7.2. Hezkuntza-sisteman sartzen diren ikasle berriak

✓ HHn eta LMHn, bi bilera egiten ditugu gurasoekin ikasleak hezkuntza-sisteman sartu baino lehenago. Lehenengo, zuzendaritzarekin, eta bestea, tutorearekin. Bilera horietan, saiateren gara denok ulertzeko moduko hizkuntza erabiltzen: gaztelania, frantsesa, ingelesa... DBHn eta DBHOn, ez dugu izan orain arte horrelako ikaslerik; baina, egonez gero, berdin jokatuko genuke.

✓ Sisteman sartzen diren ikasle berriekin, euskara izango da gehien indartuko dugun hizkuntza. Horretarako, ahal den neurrian, laguntzak eskaintzen saiaturako gara.

✓ HHn, LMHn eta DBHn, kanpotik etorri berriak diren ikasleekin edo sisteman denbora gutxi eman dutenekin, hizkuntza bakoitzeko haien gaitasun maila aztertu ondoren, adostuko dugu zer neurritan landu behar diren.

7.3 Hezkuntza-premia bereziak

7.3.1. Gelako curriculumarekin erreferentzia duten ikasleekin:

- ✓ HHn, Hezkuntza Premio Bereziak dituzten ikasleek euskaraz jasoko dute beti laguntza.
- ✓ LMHn eta DBHn, Premio Bereziak dituzten ikasleek gehienbat euskaraz jasoko dute laguntza. Gaztelania eta Ingelesa arloak ere indartu egingo dira hainbat kasutan.

7.3.2. Norbanako curriculumarekin erreferentzia duten ikasleekin:

- ✓ LMHn eta DBHn, Norbanako Curriculum Egokitzapena duten ikasleek euskaraz jasoko dituzte laguntzak. Haien programazioetan, Gaztelania edota Ingelesa arloak egokitu egin behar direla erabakiz gero, hizkuntza horietan erabiliko dira laguntzetan.

8. HIZKUNTZAK IKASTEKO METODOLOGIA

8.1. Komunikazio-ikuspegia

Komunikazio ikuspegia azken urte hauetan sortutako metodologia-korrante bat da, komunikazioan bertan oinarritzen dena. Metodologia horren arabera, harremanetan erabiliz garatzen da hizkuntza. Hau da, hizkuntza bat arau-sistema hutsa baino gehiago da: hizkuntza esanahiak sortzeko tresnarik garrantzitsuenak da, eta erabiliz ikasten da; hizkuntzaren elementuak esanahia duten neurrian soilik baneratzten ditugu: ez dira era abstraktuan jasotzen.

Ikuspegi horren arabera, hitzeko komunikazioaren osagaiak diren ULERMENA ETA ADIERAZMENA, ahoz zein idatziz, derrigorrean garatu eta landu beharko ditugu, oinarritzko gaitasunak baitira. Beraz, benetako komunikazioa eta hizkuntzen jabeak lortzeko, ez da nahikoa hizkuntza idatzari dagozkion gaitasunak adieraztea, baizik eta AHOZKO hizkuntzarekin zerikusirik dutenak ere agertzea.

Bestalde, gogoratu behar da komunikazioa ezinbestekoa dela hizkuntza-gaitasuna lortzeko. Konbentziturik gaude komunikazio ikuspegia dela komunikazioa garatzeko metodori eraginkorra. Beraz, komunikazioa izango da irakaskuntza-ikaskuntzaren estrategia nagusia.

Baina komunikazio horrek, hizkuntzaren jabeak izateko bide den neurrian, hainbat baldintza bete beharko ditu:

- Komunikaziorako testuinguru aberatsa:

Gela barruan (edukiak, baliabideak, paisaia...), ahalik eta biziaren eremu gehienetako esperientziak eskaini behar dira.

- Hizkuntzaren erabilera esanguratsua:

Irakasleok proposatutako jarduerak ikasleen behar eta interesei lotuta egon behar dute, hizkuntzarekiko lotura afektiboa lortzeko eta hizkuntza bera hurbilago eta erabilgarriago sentitzeko.


- Kalitatezko interakzioa:

Ikasleen eta irakasleen arteko harremanen kalitateak garrantzi berebizikoa du hizkuntzaren jabeak izatean. Gelako interakzioan, irakaslea izan ohi da protagonista eta hizkuntza erabiltzaile nagusia –eta bakarra, askotan–. Hori guztia dela-eta aukeratu dugu honako planteamendu didaktiko hau, komunikazioa kalitatezkoa izateko eta komunikazioaren joan-etorria bermatzeko.

- Hizkuntzaren gaineko gogoeta:

Hizkuntzaren formaren eta erregelen gaineko gogoeta egitea bide garrantzitsua da hizkuntzaren erabilera bera hobetzeko.

Beraz, lehen aipatu den moduan, benetako komunikazioa eta hizkuntzen jabeak lortzeko, ezinbestekoa da AHOZKOTASUNA zein IDATZIZKO arloak neurri berean jorratzea.



Goian aipaturiko metodologia komunikatiboa dela eta, euskarari, gaztelan, ingelesean eta frantsesean, ahal den neurrian, metodologia horretara gehien hurbiltzen diren eskola-liburuak aukeratu ditugu.

8.2. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna bloke handi batzuetan egituratzen da; DIMENTSIO izenekoetan, hain zuzen ere. Dimentsio horietako bakoitza AZPI-GAITASUNetan zehazten da, eta azpi-gaitasun bakoitzak bere EBALUAZIO-ADIERAZLEAK izango ditu.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna honako DIMENTSIO hauetan egituratuta dago:

- ✓ AHOZKOAREN ULERMENA
- ✓ IDATZIAREN ULERMENA
- ✓ MINTZAMENA
- ✓ IDAZMENA
- ✓ AHOZKO ELKARRREKINTZA

AHOZKOAREN ULERMENA dimentsioak oinarrizko trebetasun, ezagutza eta jarrera batzuk biltzen ditu, Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoen zentzua berreraikitzen laguntzen dutenak. Dimentsio honek hizkuntzaren erabilerean bi arloekin –batez ere– du zerikusia: pertsonarteko harremanekin eta komunikabideekin.


IDATZIAREN ULERMENA dimentsioak oinarrizko trebetasun, ezagutza eta jarrera batzuk biltzen ditu, Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuen zentzua berreraikitzen laguntzen dutenak. Dimentsio honek informazioa tratatzeko eta aukeratzeko oinarrizko trebetasunak –funtsezkoak jakintzaren gizarrean– biltzen ditu.

MINTZAMENA dimentsioak oinarrizko trebetasun, ezagutza eta jarrera batzuk biltzen ditu, Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoak –batik bat norberak kudeatuak– ekoizten laguntzen dutenak. Dimentsio honen baitan, berriazko trebetasun batzuk menderatu behar dira, hainbat komunikazio-egoerara egokitutako ahozko diskurtsoak ekoiztea gobernatzen dutenak; diskurtso horiek koherenteak eta bateratuak izan beharko dute (egoki antolatuta egon behar du edukiak).

IDAZMENA dimentsioak oinarrizko trebetasun, ezagutza eta jarrera batzuk biltzen ditu, Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuak ekoizten laguntzen dutenak. Testuok askotarikoak izango dira, komunikazio-egoera anitzetara egokituak, edukiaren antolakerari dagokionez koherenteak eta testualki bateratuak, eta alderdi formaletan zuzenak.

AHOZKO ELKARRREKINTZA dimentsioak oinarrizko trebetasun, ezagutza eta jarrera batzuk biltzen ditu, Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalari begira behar bezala garatu behar den pertsonarteko komunikazioa sustatzen laguntzen dutenak. Berriazko ezaugarriak dituen dimentsioa da, batik bat esanahiaren negoziazio partekatuari eta arau soziokomunikatiboak errespetatzeari lotuak.

Aldi berean, aipatutako hizkuntza komunikaziorako gaitasunaren dimentsio bakoitza AZPI-GAITASUN batzuetan gauzatzen da. Jarraian doan taulan zehazten dira:



8.3. Hizkuntza idatziaren irakaskuntza: noiz hasi?

- ✓ Euskara. Ikasleek HHko 3. mailan izango dute harremana hizkuntza idatziarekin. Beraz, euskaraz ikasiko dute irakurtzen eta idazten.
- ✓ Gaztelania. Ikasleek LMHko 2. mailatik aurrera ezagutu eta landuko dute hizkuntza idatzia.
- ✓ Ingelesa. Ikasleek LMHko 1. mailatik aurrera landuko dute hizkuntza idatzia.
- ✓ Frantsesa. Aukeratuz gero, ikasleek DBHko 3. mailatik aurrera landuko dute hizkuntza idatzia.

8.4. Hizkuntza formala eta ez-formala

Hizkuntzaren erabilera aldatu egiten da, testuingurua zein den. Jakin badakigu batez ere hizkuntza formala lantzen dela ikasgeletan. Hala ere, euskararen egoera kontuan hartuta, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu gure ikasleek euskara ez formala ezagutu eta erabiltzea, bai gelan, baita gelatik kanpo ere (atsedenaldietan, jantokian, autobusetan...). Beraz, orain arte egin dugun bezala, ikastetxeko etapa guztietan hizkuntza ez-formala lantzen jarraituko dugu; horretarako, honako bideak erabiliko ditugu:

Hizkuntza arloko eskola-liburuetan agertzen diren abestiak, esaera zaharrak, bertsoak, olerkiak, kaleko hizkera eta beste.

Normalkuntza Planean txertaturik dauden hainbat jarduera. Hona hemen adibide batzuk:

- HHn hainbat jolas proposatuko dira hilean behin, asteko egun jakin batean jolastokian aritzeko.
- HHn eta LMHn, Euskararen Astea antolatuko da.
- LMHn KANTUZ BLAI izeneko jaialdia antolatuko da urtero.
- LMHko 6. mailako ikasle talde batek bere etapako ikasle txikiagoei jolas batzuk ezagutaraziko dizkie jolastokian erabil ditzaten.
- DBHko 3. mailako ikasleentzat, Bertso Tailerra eta Bertso Paperen Lehiaketa antolatuko dira.
- DBHko 2. zikloko eta DBHOkoko ikasleei atsotitzak, denbora-pasak... eskainiko zaizkie pasilloetako edo geletako kortxoetan; eta banakako edo gelako lehiaketak antolatuko dira.
- DBHko eta DBHOkoko ikasleei hitzaldiren bat eskainiko zaie, motibagarria izan lekiekeena.

9. HIZKUNTZEN EBALUAZIOA

Ikastetxeko hizkuntza nagusia euskara izanik, ezinbestekoa da irakasle guztiek parte hartzea euskara irakasten eta prozesua ebaluatzen. Hori dela eta, edozein arlotako eta ikasgaitako programazioetan, aipatuko da euskara zuzen erabiltzea baloratuko den ala ez, eta nola baloratuko den.

9.1. Ebaluazioaren ezaugarriak

Gaur egun, hizkuntzei buruzko hausnarketa teorikoari garrantzi handia ematen diogun arren, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren beste arloak ere lantzen hasi gara. Ezagutzen eta eduki kontzeptualen ebaluaziotik konpetentzien ebaluaziora doan bidea jorratu behar dugu.

Aldaketa horri erantzuten dion ebaluazioak ezaugarri jakin batzuk izango ditu:

- Ñ Integrala: gaitasun komunikatiboaren osagai guztiak (ahozkoaren ulermena, idatziaren ulermena, mintzamina, idazmina eta ahozko elkarreragina) kontuan hartzen dituena.
- Ñ Hezitzailea: Ikasleek ikaste-prozesuan izan dituzten arazoak eta egin dituzten aurrerapenak identifikatu ondoren, irakasleen praktika ikasleen behar errealeara egokiarazten duena.
- Ñ Testuinguru egoki kokatua: komunikaziorako testuinguru jakin batean txertatuta egonik, hizkuntza elementu formal abstraktutzat ebaluatzen ez duena.
- Ñ Askotarikoa: egoera eta ikasleen ezaugarrien arabera, ebaluatzeko hainbat tresna erabiltzen dituena.
- Ñ Partekatua: ikasleen eta irakasleen arteko elkarreragina ardatz izanik, ikasleek parte hartzea dakarrena.

9.2. Zer ebaluatu: dimentsioak

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna aztertzean aipatu dugun bezala, hizkuntza guztiak ebaluatzean, bost DIMENTSIOAK hartuko ditugu kontuan: ahozko ulermena, ahozko adierazpena, idatzizko ulermena, idatzizko adierazpena eta elkarreragina.

- ✓ LMHko zikloetan eta DBHko hizkuntza mintegietan, dimentsio bakoitzak zer balio duen zehaztuko da.
- ✓ LMHko 4. eta DBHko 2. mailetakako ikasleei eginiko Ebaluazio Diagnostikoa aztertuta emaitzek –edozein hizkuntzatan eta dimentsiotan– ahuleziarik adieraziz gero, dimentsio hori indartzeko hainbat erabaki hartuko dira, eta hori guztia Hobekuntza Planak jasoko du.
- ✓ Hobekuntza Planean proposatzen dena guztion artean egin behar dugunez, LMHko arlo eta DBHko ikasgai guztietako programazioek islatuko dute dimentsio horiek nola landu eta ebaluatu.

9.3. Noiz ebaluatu

Arlo eta ikasgai guztietan bezala, ezinbestekoa da hiru urratsetan egitea hizkuntzen ebaluazioa:

- Hasierako ebaluazioa: Ikasleak aurreko zer ezagupen dituen baloratzen duena.
- Ikaste-prozesuaren ebaluazioa: Ikaste-prozesu osoan zehar egiten dena, eta ez azken mementoan soilik. Ebaluazio hezitzailearen markoan, prozesu horretatik jasotzen diren datuen bidez, beharrezko aldaketak ezar litezke heziketa-prozesuan.
- Azken ebaluazioa: Unitate tematiko bat amaitzean edo denbora jakin batean aplikatzen dena. Ezaugarri hau du: neurgarria da, ebaluazio mota horretan ikasle bakoitzari zenbaki bat esleitzen baitaio eskala jakin batean.

10. HIZKUNTA PROIEKTUAREN JARRAIPENA

Hizkuntza Proiektuaren jarraipena egiteko, beharrezkoa da gure ustez lan-talde bat osatzea.

10.1 Taldea nola osatu

Hizkuntza Normalizaziorako teknikaria, zuzendaritza-taldeko partaide bat, eta Euskara, Gaztelania eta Ingelesa mintegietako partaide bana.

10.2 Noiz bildu

Hirutan biltzea proposatzen dugu:

- Ikasturtearen hasieran (irailaren bukaeran)
- Ikasturtearen erdialdean (otsailean)
- Ikasturtearen amaieran (ekainean)

10.3 Zereginak

Lan-talde horren eginkizunak honako hauek izango dira:

Hizkuntza Proiektuaren ikasturteko planifikazioa proposatu, lehentasunak markatuz eta garatu beharreko puntuak aukeratuz.

Aurrez pentsatutako jarduerak bultzatu eta koordinatu.

Beste lan-taldeekin (Euskara batzordeak, Ebaluazio Diagnostikorako batzordea, hizkuntza-mintegiak, zuzendaritza-taldea...) jardutea, bakoitzak bere esparruko zereginak garatu ditzan.

Eginiko lanaren jarraipena eta ebaluazioa egin.